

AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA ZERBITZU KONTRATUEN

ADMINISTRAZINO-BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK

PROZEDURA IREKIA ETA LEHIAKETA BIDEZKOA

1.- Kontratuaren helburua:

Kontratu honen helburua “**Aholkularitza zerbitzua**” Kontratatzea da

2.- Helburuak / funtzioak:

Lan bila dabilenari zuzendutako aholkularitza zerbitzua banakoa da, norbere formakuntzaren gaitasunak eta eskasiak kontutan izanik laneko profil konkretu batetara egokitzeko orduan.

Formaziorako Aholkularitza Zerbitzuaren helburu orokorra lana bilatzeko zein lana hobetzeko aholkularitza, informazioa, motibazioa eta laguntza eskaintzea da. Beti ere, era pertsonalizatu batean, bakoitzaren egoera profesional eta pertsonalen arabera egokitua eta kontutan izanik enpresek egun dituzten beharrianak. Era horrek bezero bakoitzaren jarraipen zehatzago bat egitea errazten du, bere beharrianetara hobeto egokitzen da eta ondorioz egituratuko laneratze ibilbidea une oro kontrolatuta edukitzea lortuko da.

Bestalde, lan merkatuko eskariaren nondik-norakoa eta bertaratzen diren talde guztien beharrian eta arazo bereziak aztertuko dira. Horrek bidea ematen digu aholkularitza zerbitzuan formakuntzako ekintza planak diseinatzeko.

Horretaz gain, kontutan izan beharko dira inguruko enpresen beharrianak formakuntza ekintzak beraiei egokitzeko baita enpresei zuzendutako zerbitzuak ere.

3.- Esleipen irizpideak:

a.-Proiektua bideratzeko planteatutako lan metodologia. (45 puntu)

b.- Proiektua burutzeko, aurkeztutako diru proposamena (25 puntu)

4.- Aurkezten diran eskaintzek euki beharreko gitxieneko edukina:

Lan metodologia, diru proposamena eta baliabide tekniko eta pertsonalak.

5.- Ordainketa modua:

Hilero, egindako eskaintzaren arabera 24 hilabetetan zatituta.

6.- Enpresen esleipenduneko langileek izan behar dituzten ezagutzak:

- Lizenziaturako edo Diplomaturako ikasketak beharrezkoak izango dira,
- Administrazio publikoan esperientzia eta Administrazio-prozedurako ezagupenak
- Esperientzia formakuntzako planak diseinatzen bai banakakoak bai enpresei zuzendutakoak, kontutan izanik formakuntza arautua, etengabekoa eta okupazionala.
- Euskara menperatzea
- Lanbideko prestakuntza
- Beste prestakuntza (giza baliabidean, inmigrazioan, gizarte segurantzan etab.) baloratuko da
- Toki Garapena eta enpresei zuzendutako zerbitzuetan ezagutzak ...

Bermeon, 2011ko urriaren 4an